

Suaren bitartez

Zertarako pizten dituzte hainbat kandela fededunek elizetan? Argia axolagabe zaio Jainkoari nonahi dagoelako, leku guztietan, argian edo ilunean. Ekialdera zuzenduta dauden gure elizetan, eguzkia ala jainkoa gurtzen ari naizen galdegin diot nire buruari? Eguzkiaren gurtzea Jainkoarenarekin nahastuta dago, baina ez honekin bakarrik, esango nuke, zeruarekin, argiarekin, mendiaren tontorrarekin eta gurutzearekin ere nahastuta dagoela. Antzinako fedea baztertu ezin ditugulako mendi tontorrean (toki argitsuan) ipintzen dugu gure gurutzea eta ez zulo ilunean. Gure zibilizazioan oinarritutako sinesmen hori gure ohitura guztietan kokatzen da. Eltxoak bezala, etengabe ahalegintzen gara argira hurbiltzen. Adibidez, argiaren eta garaieraren kultuagatik gizon batzuek takoi altuak daramatzaten ilehoriko emakumeei so egiten diete. Zure buruan ukabilkada jo eta gero, zure gorputzaren goiko zatia den buruaren soinua entzungo duzu: GOR. GARRA GORRI GORA IGO da. Hain zuzen ere "herskak" gor (G) edo (K) ozenaren bitartez munduaren goikaldean aurkitzen diren elementuei deitzen zien gizonak. GO/KO; GU/KU; GI/KI. Marrazteko formak eta koloreak ezinbesteko dira. Hizkuntzalaritzan kontsonanteak formak dira, bokalak koloreak. Zeruan dauden osagai guztiak deitzeko gure zibilizazioak G edo K kontsonante-forma bat bokal-kolore ezberdinenez O,U,I margotzea erabaki zuen. Zeruan daude HEGO, EGU, EKI, GI edo KI su handi da. Materialak aldatzeko gizonak su indarra aprobetxatzen zuelako GI edo KI suaren izenaz deitu zituen ekintza horiek EGIN, EGOSI, IRAKIN. Gi partikulaz teknologia prozesua aipatzen da ekoiz-leku izenetan diren OGI, HARAGI edo TEGI surik gabe aterperik ez delako. Gaur errusieraz GORA: mendi, GORIT: kiskali, KIPET: irakin. Eslaviarrengan eguzkiaren antzinako izena: RA. RADUGA: ostadar. Kaukason bizi diren zirkasiarrek RO, RU edo RA partikula darabilte, euskaldunek era berean GI ,ERRE edo ERA. zirkasieraz Kheli-ru: ogi, hau da, zekale - egosita. Zirkasieraz aditzaren aitzinean ipinitako RA partikulak arazi esan nahi du. Burdin zirkasieraz RU-TXHUY, edo egositako-lurra. Honako izenak ekoizpenerako prozesua izan zutela jakinarazi digu, hots, herri horrek bazekiela nola burdina ekoizti. Baina buru-indar edo burdin laburpenak erakusten digu garai hartan euskaldunak burdina erabiltzea bazekitela, besterik ez. Ez ekoizpenerako teknologiagandik, baina produktuagandik Burdinola lantegiaren izena atera zuten. IRA su handia da, GI edo KI zen bezala, aditzaren aitzinean ERA edo IRA ipini zuten euskaldunek suarekin egin zitezkeen ekintzak adierazteko. IRA+KI = IRAKI. Zirkasierak gramatika lege bere dauka. Antolaketa soziala aldatu eta gero lan egiteak ez dio suari bakarrik eman baita ere langileari. IRA edo ERA aurrizkiek erakusten digute ekintza bat egin eta agindu duena bi pertsona desberdin direla. ERA+EGIN = ERAGIN; ERA+IBILI = ERABILI. Nahiz eta gizarte horretan zeregin ezberdina zeukaten, bi pertsonak oinarri berbera duten hizkera darabilte. Adibidez IRAKASLEAK eta IKASLEAK gela berean lan egiten dute. Gaur euskarazko aditzari ARAZI bukaera ipintzen diogu, IRA+KI+ARAZI = irakinarazi. Printzipio hori segitzen duelako esan dezakegu euskarazko gizateriaren banaketa mugatua dela. Ekintzarekin loturarik ez duen klase sozial batek, ekintza aipatzen ez duen beste hiztegi bat darabil gizartearen zatiketa haratago doalako.

•

EGIN (langile - zuzeneko harremana)

•

ERAGIN edo EGINARAZI (langilearen buruzagi – zeharkako harremana)

- APROBETXATU (ustiatzaile, esplotatzaile, baliatzaile: lanarekin loturarik ez daukana)
Ekoizpenerako garapenean gizarteak nozitzen duen aldaketak bultzatzen duen hiztegiaren eboluzioa.